


**ZER**  
**ALDIZKARIA**

420. zenbakia  
2015 AZILLA

**Bizkaitarrei  
Bizkaieraz**



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

# ZELAIA´TAR ADRIAN

1917AN JAIO — 2015AN IL

EUSKERAZALEAK

ALKARTEAREN

SORTZAILETARIKO

BAT (1967)

URRENGORARTE  
ADRIAN



**Euskaldunak eta etorkizuna:  
identidadea globalizazioan**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2015-2016 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

### 48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

# Euskaldunak eta etorkizuna: identidadea globalizazinoan

(ITZALDIA)

Angel Larrea

Euskaldunak euskeraz berba egiten dabenak dirala esaten badogu zera adierazoten dogu: Euskal Errian bizi diran guztiak ez dirala euskaldunak. Gaur egun, Euskal Errian eta munduan zear sakabanatuta dagozan euskaldunak milioi bat lagun dira gitxi gorabeera. Izkuntza gitxiagotua beraz.



**E**ta etorkizuna? Zein da euskerearen etorkizuna? Batzuen ustez, positiboa, au da, bizirik iraungo dauela dinoe. Beste batzuk, barriz, ezezkorrak dira: munduko beste izkuntza gitxiagotu askori gertauko jakon moduan, etorkizun iluna eta desagerpena. Azken eretxi onen atzean “globalizazinoa” deritxon fenomeno dago.

Zer da globalizazino linguistikoa? Fenomeno konplexua eta zabala da. Merkatu osoa bilakatu dan mundu onetan, eko-

nomian erabilten dan oligopolio berbea aplikatuz, izkuntza gitxi, nagusiak munduan edo iztun asko daukienak dira -edo izango dira- abantailagaz jokatuko dabenak. Beste asko, kinka edo egoera larrian dagoz edo egongo dira.

“Globalizazino” fenomenoagaz batera beste kontzeptu au be erabilten da: “Kolonizazino kulturala”. Labur-labur esanda, gaurko gizarte teknifikatuan gero eta berba edo esamolde geiagoko kanpoko izkuntzetatik artzen

dira (maileguak), euskerearen lexiko propioaren kalterako.

Non dago identidadea gizarte globalizatu onetan? Identidade kulturala, ain zuzen be? Identidadeak profil asko ditu, eta kulturalak be bereak ditu. Ikuspuntu etniko batetik, ots, alde tradizionaletik begiratuta, identidade kulturean izkuntzak garrantzi nabarmena dau. Gure kasuan, ezin dogu ulertu Euskal Erria euskerea barik. Baina zer euskera izango da etorkizunean, mundu globalean bizirik? Orain

arte, euskalkiak erabili doguz eta oraindino erabilten doguz, bai aoz, bai idazteko orduan. Kontua baina beste bat da: gure gizarteak, etorkizun urbilean jadanik, aldaketa ugari aurreikusten ditu, arlo askotan ganera. Euskal gizartearen demografiak, kasurako, ez deitso bape laguntzen euskerearen biziraupenari. Euskal Erriko biztanleen artean erdia be ez da euskalduna. Euskaldunok euskera batua eta euskalkiak ditugu. Eta etorkizunari begira, biziraupenari begira, gizarte teknifikatu eta globalizatu orretan zein euskera egingo da edo egingo dogu? Batua eta euskalkiak oraingo moduan, edo batua eta euskalkiak naasturik, “ibridazinoa”ri esker.

Etorkizuna, aurrean daukagun eskenatokia, erronkaz beterik dago euskaldunentzat. Beti izan da orrela, baina emoten dau ortxe, ur-ur daukaguzan urteetan euskal gizarteak eta euskaldunen komunitadeak euren identidade kulturala mantentzeko aalegin andia egin bear ko dabela. Gure aurrekoen belaunaldia, kultura tradizionalan oinarritutakoa azkena izan dana, bajoaku. Oraina uritarra da eta etorkizuna are geiago. Landa-eremuaren nagusitasuna iragana da, euskerearen espazio tradizionala izan dana mende askotan zear joanda dago. Espazio barriak okupau bear ditugu euskaltzaleok.

Nondik jo bear ko dogu, ba? Abiapuntu onak dagoz momentu onetan, Euskal Erriko Egoaldean beintzat: izkuntza ofiziala, ezkuntza-sisteman D eredu euskaldun eta nagusi, komunikabide euskaldunak (telebisino, irrati, egunkari, aldizkari...) eta,

batez be, gogoia eta kemena euskeraz bizi aal izateko. Euskal iztun-komunitade txikia dala, gauza geiago egin daitekezala, gizartearen sektore batzuk ez dirala integrau euskerearen normalizazinoan... Egia da, utsuneak ainbat dira, prozesua ez dala ko izan guk gura izan dogun baizen ona. Baina or dago. Pausuak emon dira, eta ori ez da gitxi izan. Segidu daigun beraz, euskeraz egiten etxean, lanean, kalean...!

Alanda be, zabalik dago eztabaida au euskaltzaleen artean:

Zelan aprobetxau egunero esku artean darabilguzan baliabide teknologikoak, internet adibidez? Sarea gune interesgarria izango litzateke “irizpide antzekoak ditugun euskaltzaleak or bilduteko, alkarrekin egoteko eta ekimenak aurrera eroateko”, Juan Inazio Artsuaga, antropologo tolosarrak esaten dauen moduan Argia aldizkarian (2014-11-23, 2.438 zk.).

Edo zelan kudeatu telebisino, komunikazinarako daukagun tresnarik eragingarriena? Nire lagun eta lankide batek, Iñaki Esparza irakasleak beti dinost: “Errietako edota eskualdeko telebisinoak dira baliabide ezin obeak euskerrea jentearengana urbilduteko, betiere, gertuko albisteak, musikea, kirolak edo ekimenak emittiduz”.

Denporeak esango deusku zein dan bidea.

Eskerrik asko.



# ZELAIA 'TAR ADRIAN

1917AN JAI0 — 2015AN IL

EUSKERAZALEAK

ALKARTEAREN

SORTZAILETARIKO

BAT (1967)

URRENGORARTE  
ADRIAN



# IRU IKASLE ALPERRAK

Nabarnizko Gabika auzoko Maripa Izpizua kontaktua

## Gure ipuinlariak.

Gure ipuinlariak ikasleak oker, alper, amarrutsuak, buru zorrozduak izan oi dira guztiak. Olakoxeak ziran bein Bilbon alkargoa egin ebenak.

Irabazitako diru apurrak irazi, "zelan irabazi, alan irazi" Bai, ikasteak utzi, lanerako nagi eta nakar, goian zerua eta beean lurra. Zerbait egin bear dogu estaldi onetako loturak apurtzeko.


Euretatik buru jantzienak esaten dautse bere lagunai:

- Zuk nundik edo andik ardoa ekarri.
- Zuk aragia beinkiarena zein txarriarena, aragia daitela beintzat ekarri
- Zuk ogia ekarri

**Lenengo ikaslea** asi zan, bere aldetik, ardoaren billa. Diru barik nun eta zelan? Zaragi bat norbaitengandik zuzenduta, urez beterik, ardotegi batera joan zan. Tabernariari urlia aberatsaren morroia zala esan eutson eta ardaua etzala ainbestekoa eta aldatzea nai ebal bere ugazabak. Aberatsari edozer mesede egin bear jako eta ekarri ona zaragi ori eta artu orren orde beraren tamañukoa. Ikas-

leak bere zaragia itxi eta bestea lepoan artuta, etxeko bidea artu eban. Zelakoa zan zaragi ori? Zaragi zarra eta urez beterik. Ipuiñ onek ez dauko ez bururik ez abururik.

Bai, egia da erriaren esana. **"Bururik ez, ta txapela nai"**



**Bigarren ikaslea** azokara joan zan aragi billa. Aari bat ikusi eta urrertu zan saltzaillearengana. Laster egin eben tratua, eta esaten dautso gizonari. Erdu nigaz Elizara, antxe dago nire ugazaba eta laster dozu eskuan dirua. Egon ementxe, esan eutson, elizpean sartu ziranean, neuk abadea bertora ekarri arte, eta abadearen autortegira joan zan.

Jauna, or ate ondoan agiri dan gizona autortzera dator. Dirua eta dirua noizean bein aitatu dau tsu. Gizagaxoa ergela da.

-Etortzeko esaiozu.

-Joateko diñotso aariaren jabeari, antxe zokondo artako autortegian dago. Saltzaillea urreratu eta zutun zutunik, ixil-ixilik dago.

-Belaunikatu zaitetz esan dautso abadeak.

-Diru billa nator, jauna.-

-Zer diru eta diru ondo?

-Aariaren dirua.

-Esan egidazu lenengo, gizagaixo orrek, ni pekataria, dirua gerorako itxita.

-Dirua bear dodala, Elizan ere lapurretan? Abadea muturtu jakon eta zokondoan eukan makillaz, (errena zan bera eta pipermiña bezelako sutsua) erdi alaruka elizatik atera eban gizon tranpalaria. Ordurako iges eginda egoan eroslea aaria eta guzti. Batek badaki nundik nora joan zan.

**“Bere burua ezagutzea da jakitea”**

**Irugarren ikaslea** azoka inguruko okintza baten sartu zan. Ogi eder bi erosita, esaten dautso jabeari, erdu dirua artzera neure ugazabaren etxera. Andik gertu bizi zan barberua eta tabernara joan ziran biak.

-Zagoz ementxe goian nagon artean. Ogi jabea atean utzi eta ikaslea gora doa. Atean ots eginda:

-Nor da?

-Neu, atarian gizon bat dago labatiba nai lu-keena eta.

-Egoteko apur baten. Prest dagoenean dei egingo jako, esaiozu.

Jatsi zan ikaslea.

-Eurek dei egin arte egon zaitetz. Egon eta egon luzaro gogaitu zan ogiduna eta alako baten kisketari ots aundi batzuk eraginda:

-Prest gagoz, esan eutson goikoari. Estualdi larria daukot, erdu ariñ.

Eldu zan goikoa. -: Prarak erantzi egizuz, esan eutson barberuaren semeak.


-Zer praka eta zer praka ondo, dirua bear dot nik.

Aita semeen artean oratuta prarak beeratuaz emon eutson astinaldi garratza eta saritzat peseta bi katanarrutik aterata eta bere bidean bialdu eban ogiduna.

Iru ikasleak alkar bat eginda okotzeraño bete arteko jan edana egin eben illuntze artan. Barre algarak egiñik zer ospatu eben? Euren etekin eta irabaziak baño geiago xelebrequeriak eta maltzurkeriak.

**Geroa, alperren leloa- Gaiztoak berarekin gaiztakeria.**

Resurrección Maria Azkue. Euskal Erriaren Jakintza, literatura popular del Pais Vasco. II liburua, ipuiñak eta irakurgaiak. Euskaltzaindia, Espasa Calpe



## Bearrak irakasle

Palmi Merino "Urdiñe"

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2014ko sari leiketa. Bosgarren saria

*Bearrak adimena indartzen dauala ei da, eta egia dala ziurtatu daiteke, orren lekuko Elisaren familia zan.*


*Au, guda aurreko emakume askok egiztatu eikean. Maria eta bere alaba Elisa, eurretariko ereduak ziran. Guda zibilla baino len, ekonomiaren egoera estu ta larria zan, gizonentzako bearrik ez eta orren ondorioz etxe askotan emakumeak ziran familia osoa mantentzen ebenak.*

*Mariaren etxean zazpi ziran: Maria, Koldo bere senarra eta euren bost seme-alaba: Julen, Elisa, Iñigo, Jagoba eta Jon, gazteena. Etxeko gizonok langabezian egonez gero, gorriak ikusi ebezan jatorduetan eta etxeokari aurre egiteko, orregaitik eta etxe askotan bezela emakumeek artu bear eben etxeok ardurea.*

*Mariak bere aizta batekin arratsaldero lantegi baterako alkondarak eta beste jantzi batzuk josten ebezan, egun askotan gaba osoak lo egin barik josi eta josi geratzen ziran. Batzutan, jantziak eskuratzeko eguna urbiltzean eta prest ez egozanez gero gizonek ere laguntzen eben; albainak kentzen, botoiak josten...gauzarik errezenak egiten.*

*Elisa, neska lirain eta oso langillea zan eta, dirudun batzuen etxean neskametzat lanean asi zan. Neskarentzako txarrena, etxe aretan barnaturik geratu bear zala zan. Bera, inoiz ez zan bere familiarengandik aldendu eta orregaitik gauero negarrari emoten eutson koittadua.*

*Bere aita, etxeok bearraz bultzaturik illeroko azken*





egunetan alabaren soldataren bila joaten zan, onek Elisari asko lotsarazi eutson. Etxeko jabeak ostera adertasunez artzen eban Elisaren aitaren ikustaldia, jantzi eta jakiak familiarentzat opari-egiten.

Egunak joan eta egunak etorri, Elisaren goibeltasuna gero eta aundiagoa zan.

Leengo udean, bere lanpostua edo bearra lortu baino len, bere erriko jaietan mutil bat ezagutu eban. Jon, ori zan mutillaren izena, gazte zintzo eta lerdena zan, bera baino sei urte geiagokoa eta ezagutu orduko alkar maitemindu ziran.

Andik aste batzutara senar-emaztegaiak egin ziran baña Elisa bere sendiari jakinarazi eta bere senargaia nor zan esan eutsonen asarre bizia sortu zan bere famili artean.

Jon, gazte galanta eta zintzoa izan arren apal eta xumea zan. Meategietan meatzari bearra egiten eban, lan gogorra eta txarto ordainduta orregaitik Elisaren familiak ez eban onartzen. Eurek, maila altsuagoko gizon bat gura eban Elisarentzat bizitza erosoago lortzeko asmoz.

Orrek, neskeri asko goibeldu eutson, orrek eta bere etxetik urruntzea bere-bai.



Elisak Joni, bere sendiaren asarrea eta asmoa kontatu eutsonean gaztea estu ta larri geratu zan, berak bere lanpostua obetu gura eban baña egoera larriegia zan aldi aretakoa.

Andik aurrera Jon eta Elisak, isilean gorde eben euren arremanak iñori ez esaten eta al-karganatzeak ezkutatu. Egoera gazteentzat oso larria zan baña alkar-maitasunak biotza arintzen eutsen.


Egun batean, Jonek seriotasunez, auxe esan eutson Elisari:

--Entzun maitea, nire asmoa zugaz famili bat osatzea da baña zure sendiak ez nau onartzen. Nik zugaz ezkondu gura dot, ez zure senitartekoakaz orregaitik eta zuk gura badozu etorri zaitez nire etxera eta zu adiñekoa izatean ezin deutzue debekatu, gero, an, nire errian ezkonduko gara.

Elisak arriturik ez ekian zer esan, asko maite eban Jon baña bere gurasoak eta nebeengandik betiko aldendu eta orrela...

--Jon maitea, -esan eutson maitekiro-ni zurekin atseginez joango nintzake naiz eta zure anai-arrebakaz bizi-izan bear baña nire gurasoen etxean, aita eta nire soldata baño ez dira sartzen. Ilebete batzuk emoten badaustazuz nik leunki zenbat maite nozun eta zoriontsua zugaz bakarrik izango nazanez konbentzituko deutsez, gero, zu ondo ezagutzean danok biotzez onartuko zaitue.

Biotzmiñez artu eban Jon Elisa-ren itzak baña zentzuzko itzak ziran eta onartzekoak, beraz maita-



sunez besarkatzen urrengo iganderarte alkar agurtu ziran.

Igandero goizean Jon bere erritik urbil egoan itxasertzeetara igeri-egiten eta karramarroak eta txirlak arrapatzen joaten zan gero etxean danon artean gozatzeko. Urrrengo igandean eta arrantza ugari izan ezkero Elisaren familiari oparitzea otu jakon, danok atsegiñez onartu ebezan itsaskiak eurentzat luxusko gauza zan eta.

Bat-batean Maria, Elisaren amak, atzamarrak miazkatzen esan eban:

-Elisa, zure senargai gauza ain gozoak arrapatzeko oso trebea bada, sarriago arrantzuan egitera Joan daiteke, izeko eta biok erriko azokan saldu daikeguz eta zuen ezkontzarako dirua aurreztu daiketzue.

Ori bai asmo ona ama! Esan eben Elisaren nebeek batera, eta guk Joni itsaskiak arrapatzen lagunduko deutsogu.

Orrela egin eben eta andik aurrera bearrezko baimenak eskatu ostean errian itsas-saltzaile ospetsuak izan ziran. Jon eta Elisa ezkondu ziran eta familia osoa pobrezia-tik betiko urten ziran.

Bearrak adimena indartzen dauala ei da...



# Euskalerria atzerritarren begietan



## GUILLERMO HUMBOLT jaunak diño:

“Iñoiz ikusi ditudan errialde artean, Euskal. Erria da bakarrik kultura, jakintza eta zuzenbide errikoi-errikoiak dituen erria.

Goi beeko gizarte maillak alkarrengandik etenik gabe urbil dituen. Goikoen argiaz beekoak baliatuz eta alderantziz, beekoen jatorrasuna, zintzotasuna eta zuur zentzua goikoek onartua.

Beste au diño, barriz, Ingalaterrako Bowles jakintzu jaunak: Euskal Errian barna nembilerarik, Homerok adierazten dauan moduan, aro eta oitura giro barruan nengoela iruditzen jatan. Benetako xalotasuna, kemena eta alaitasuna ikusi eta bizi nai dituanak, ango mendialde aretan aurkituko ditu ziurtasunez, eta zalantzarik barik.

Baita ezagutu eta ezagutuko dau ango jendea, aberatza izan ez arren, ondo baño obeto bizi dala, eta ez dagoela iñoren eta iñungo aundikiren menpean”.



## ORTEGA GASSET jaunak

Esandako berba ederrak: "Zerutiar eta lurta sargardo pitxarrarekin naasten ditu euskaldunak bere otoitzak eta dantza zoragarriak eta baita be ospatzen dituan elizkizunak. Ez dago España guztian, emen bezelako lur landurik, ez eta errixka garbiagorik, eta iri ederragorik

Aurrerapen guztiei lotuta, elizbide eta gizabideari, era berean, sendo lotu eta eutsirik. Ez dot nik ezagutzen erri au baizen zintzo eta zuzenik, ez eta Europa guztian beste errialde bat onen antzekorik. Aurpegiz eta arimaz zorrotz, giza landareak mundu onetan emondako kimu eta ernamuin ederrenetari-koa da, benetan, Euskalduna”



## INGLATERRAKO RONEY GALLOP jaunak

Esandakoa: "Asmoz eta egitez, garbi eta zuzen, gizamotarik ederrena dozu Euskalduna. Erri jator onetan ikusi, aztertu eta begiratu daikezuz, beste errialdetan galduta dagozan giza-baliagarriak, bizibideak eta oiturak."



### GURE ONDARE GORAGARRIA.

Ontzat artzen ditugu Euskaldunen alde atzerritarren esaerak eta iritziak. Baña ikusi dagigun Euskaldunak gure onerako egin ditugun jokaldiak. Oñatiko Unibersitatea Rodrigo Saez de Mercado Zuazola gotzainak, oñatiarra, sorturikoa 1540 urtean. Ikastegi onetan, millaka gazteak ikasi eta bizi egin ebezan Kristau fedean eta gizarte bizibidean ondasunik goragarrienak Auxe da ondare ederrena.

Jatorriz datorrigu Euskaldunai gizakiaren jatorrasuna, gaitasuna eta ganora. Orrez gain gure gurasoek euren semeak Europako ikastetxe nagusietara bialtzen zituen jakintzaz distiratzeko Eta etxe barruetan alegintzen ziran bertoko oiturak zuzentzeko ta gozatzeko, alperkeria, ezjakintza eta galbide guztiak uxatzeko. Baita be erriaren urratsak aurkitu eta aztertu gizartearen aurrerapena eratu eta eraginkor egiteko. Bai, gure gazteek ez ziran Gaztelara joan lan billa bakarrik. Baziran Ikastetxe nagusietara joaten ziranak, izen aundiko gizonak izateko, erregeen onulari, eta aberriaren gidari zoragarriak.

Gaur egun izen aundiko Euskalerrian zintzo ausnartu bear dogu zer eta zelako sustraiak eta jatorrizko balio-tasunak galdu doguzan, eta danok bat eginda, gure izen ona goiko maillan jarri gizadi osoaren aurrean. Beti gora Kristau fedean eta Euskal bizibidean.

**Urighen tar Zenon**

*Pasiotarra*



# Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (V)

## Aragoiko jaurkintza.

1.454ko urtean II In Juanen anaia Aragoiko Vn Alfonso, Italia ta Siziliaren egoaldetik jaurkitzen egoala bere erreinua, II In Juan izendatu eban Aragoi ta Kataluñako ordezkotzat<sup>(1)</sup>.

1.455eko urtean II In Blanka bere neba IVn Karlosekin batera, bere aita II In Juaneri, Nafar erregetzan eurak euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itzi ta irugarren alaba Leonor 30 urte ebazala ondorengo lez izendatuta, Nafarroarren arteko anai-guda biztu eban.

1.458an Uztaillaren 15ean Aragoiko Vn Alfonso erregea ondorengo barik il da, II In Juaneri egoki jakon Aragoitarren erregetzazko aulkia.

Eta 1.458an Uztaillaren 25ean II In Juanek, naita batera Kataluñako jaurkintza bere seme IVn Karlose-ri emon bear, bere seme Fernando<sup>(2)</sup> Montblankeko Duke ta Ribagorzako Konde izendatu eban Balagerreko Uriaren jauntzagaz batera.

1.460an IVn Karlos atxilotu eben bere aita II In Juanen aginduz, eta



Kataluñan II In Juanen aurka egon ziran erakundeak, La-Biga, errien andiki, zaldunak eta eleizako abade ta agintari batzuk matxinatuta, anai arteko guda antzeko bat asi eben.

1.460ko urtean Katalan gorteak Leridako Urian batzartuta, aske itzi egiela bere seme IVn Karlos eskatu eutsoen II In Juaneri.

Eta 1.461ean Katalanek II In Juaneri, Penedeseko Billafrankaren ongunea onartzen beartu eban, berari debekatuta Kataluñan sartzea bertoko agintarien baimenik

(1) Ordezko = lugarteniente. (2) Gero II In Fernando katolikua izango zana.



bage, Kataluñako jaurkintza IVn Karlosen ardurapean itxita, naita lan ori Kataluñaren Orokorrezko edo Generalitateko arduradunak egin, IIIn Juan IVn Karlosen aita, beti ibili zalako beren atzetik atxilotu naian.

1.461eko urte berean IIIn Juanek, gogogabeko aldarrikapen bat egin eban, IVn Karlosen erregetzazko eskubidearen jabetasunak onartuta.

Eta 1.461eko Iraillaren 23an il zan IVn Karlos, Enrikeztar Juana IIIn Juanen emazteak pozoituta.

IVn Karlos il ostean Katalanak, aurrera eroan eben IIIn Juaneri Kataluñan sartzen ez iztea, bertoko arduradunaren baimenik gabe.

1.462ko Otsaillan baiña, IIIn Juanek Penedeseko Billafrankaren ituneri jaramon egin barik Kataluñan sartuta, katalanen anai arteko guda asi eben, remensako payes nekazaritzaren iraultzagaz bateratu zana.

Kataluñako matxintasunaren aurka IIIn Juanek lortu ebana, Aragoi, Balentzia ta Siziliaren zintzotasuna zan.

Katalanek baiña, IIIn Juan errege lez ez ebelako ontzat artzen, erbesteratutako bat izango zan lez euki eben.

Kataluñako Jeneralitatearen gudozoteak Pallarestar Rojerren aginduz, Enrikeztar Juana eta bere seme Fernando Jeronan egin ziran gazteluan, inguratuta euki ebazan lau

illabetetan, arik eta IIIn Juan frantzezaren laguntzarekin askatu arte.

XIn Luisen Frantzez laguntzagaitik erabagi ziran ordaiñak, 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbekoa<sup>(1)</sup> zan, IIIn Juanek urte baten barruan ordaindu bear ebana, eta ordainketa orren bitartean Zerdeña ta Rosellon emon ebazalako baikuntzan, Frantzezaren jabetasunera aldatu ziran, 200.000 dolbeko dirutza ori IIIn Juanek, sekula ez ebalako ordaindu.

Guda luze onetan Katalanak, Gaztelako IVn Enrikeri eskeiñi eutsoen Bartzelonako konderrria, eta izendatu be bai, baiña Frantzezak bitartean sartuta IIIn Juanek zor eutsozan ordaiñak eskuratu gura ebazalako, gaztelatarrak nai aleginduarren be, ez eben Bartzelonako konderrri ori artu.

IIIn Juanek denbora oneitan bere maltzurtasunezko trikimaillu guz-

(1) Urre-gorritzko otxin edo dolba = doblones de oro.

tiegaz, Nafartar erreñua bere bigarren ezkontzako seme Fernandoren eskuetan izteko ibili zan, maltzurrezko joku orretan bere alaba txikerra Leonorren alde ibili zalakoan, bere lenengo alaba II In Blanka erregetzatik zelan alden du alegiñetan ibili zalako, baiña denboraren igarotzeak erakutsiko eban, ori be guzur utsa izan zala, azken baten Leonorren aurka be ibili zalako.

1.462an Jorraillaren 12an II In Juanek Oliten, bere alaba Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargo bat, Leonor bere urrengoa izendatuta bere zenarra be ondorengo lez artu ebana.

Eta orretarako II Blanka benetako erregeñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez gauza orreik, bereala asi ziran azpikeriz beren ilketa antolatzen.

1.462ko urtean II In Blanka baka-



rrik eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, II In Juan Frantziko XI In Luisekin Agurainen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, II In Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XI In Luisen 16 urteko seme txikerra Berri´ko Dukea izan zanaren Karlosegaz ezkondu zedin, eta II In Blankak ezetza emon eban lez, aita asarre, Foixeko IV n Gaston bere suiñen agindupeko Monkada dorrean atxilotzea erabagi eban.

1.462an Jorraillaren 23an eta II In Juanek aginduta, Mozen Pierres Peraltakoak II In Blanka, mendi osterata atxilotuta eroan eban, eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, II In Blankak: “bere Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian, atxilotuta eroaten ebala aldarrikatu eban, bere orde z Leonor aizta txikerra eta Fernando ugaznebaren mesede”.

“Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi egitezala beren salaketa orreik, olango zeozer egiterakoan, bere borondatea Gaztelako errege IV n Enrike bere lenengo senarra zanaren, Armeñak Kondearen zainpean iztea zalako euki ebazan eskubideak eta” 1.462ko Jorraillaren 30ean II In Blankak egin ebana.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan beren seme/alaba IV n Karlos eta II In Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an il zan pozoituta II In Blanka, II In Juan bere aitaren aginduz Frantziko Orthez errian.

### **Oarrezko labur baten bidez, emen ikusten doguna.**

II In Juanek bere bigarren emazte Juana Enrikezegaz batera, IV n Karlos eta II In Blanka euren erregetzazko eskubidetik aldentzeko, Nafarroako anai-guda eurok sortu ebela ikusten dogu, eta trikimaillu guztiak ibilita be ezinean agertu ziranean, pozoitu ebezala biak, Nafar erregetza, euren azkeneko seme Aragoiko II In Fernandoren eskuetan izteko alegiñean.

1.463ko urtean eta Kataluñako borroka luze au aurre-ra joan zala, katalanak IV n Enrikeri egin eutsoen Eskeintza bardiña egin eutsoen Portugaleko Pedro kondeordeari, baiña au urte bi beranduago il zan lez Kalaf´eko borrokan, gero Aragoiko errege izango zan II In Fernando katolikua 13 urte bakarrik euki ebazanaren aurka, orgeratu zan aukera ori.

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.





1.466ko urtean Katalanak Anjou´ko Renato´ri be egin eutsoen eskeintza bardiña, baiña orrek be ez eban aurrerakuntzarik euki.

1.468an Otsaillaren 13an bulerreko min-bizia-gaz il jakon Enriketar Juana emaztea IIn Juaneri.

1.468ko urtean IIn Juanek, Iruñako gotzaiña Txabarri´tar Nikolas bere alaba Leonorren aolkulari zana il eban.

1.469an Epaillaren 5ean Aragoi ta Nafarroako IIn Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, ariñautik il zan IIn Pio Aita Santuen bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako lengusutasuna ezerez-tuteko, eta an egon ziranak jakin arren gertae-ra ori, Leridako lurraldearen Zerberako Urian siñatu eban ezkontzaren alkargo orren agiria.

Eta 1.469an Urrillaren 19an Balladolizen Biberoko jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Jeronako Printzea zan IIn Fernandogaz.

1.469an Abenduaren 16an Lorenako Dukea il jakien katalanari, eta IIn Juanek Bartzelona inguratu ondoren, bakezko ongune batera eldu ziran alde biak.

1.472an Abenduaren 22an, IIn Juan bere ziltalkerizko irurogeita-amabost urte euki zituze-nean ta ia itsu egon arren, bere seme Fernandoren laguntzakin, Bartzelonan sartzea lortu eban, eta egin eben ongune bitartez, danari parkamena emonda, Kataluñaren Foru ta askatasunari ziñez itz emon ondoren, Kataluñako anai guda luze ori, Predralbeseko elkargo orre-gaz amaitu zan.

IIn Juanek bere askenengo borrokakaz, Rosellon ta Zerdeña be berrezkuratu gura ebazan, baiña XIn Luisek ez eutson ezer emon, diru askoren zorrak euki ebazalako beragaz.

### **Nafarroako I Blanka eta IIn Juanek lenengo ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:**

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan IVn Karlos, Jerona ta Bianako Lenengo printzea, Borgoña, Gandia eta Montblankeko Dukea, ta IIn Feliperen loba Kleberis´tar Ines´ekin ezkontuta egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan Juana.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan IIn Blanka, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVn Enrikegaz ezkontuta egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan I Leonor, Nafarroako erregetzan ondorengo ta gero erregiña zana, eta IVn Gaston, Foixeko Konde ta Bearn´eko Kondearen ordezkoa izan zana-kin ezkontuta egon zana.

**IIn Juanek Gaztelako Enrikeztar Juanagaz bigarren ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:**

1.448ko urtean, Aragoiko Leonor.

1.452ko urtean bere ondorengo izango zan Siziliako errege, Aragoiko izenean IIn Fernando, eta Gaztelako erregegiñaren bizi-lagun lez Vn Fernandoren izenagaz ezagutuko zana.

Eta 1.454ko urtean Aragoiko Juana, Napoleseko errege I Fernandogaz ezkondu zana.

**Eta IIn Juanek legezko ezkontzatik kanpo euki zituzen seme/alabak, oneik izan ziran:**

1.439/40ko urtean Juan, Zaragozako gongotzain edo artx-apezpikua izango zana.

1.417ko urtean Alfonso, Kalatrabako maillan nagusia izango zana-ren alaba Eskobartar Leonorregaz euki ebana.

Nafartar Leriñeko II Konde Beaumont'ar Luisen andregaz euki eban Aragoiko Leonor.

Eta 1.455ko urtean, Maria.

1.479ko Urtarrillaren 20an 83 urte eukezala II zan IIn Juan "Andia" esaten eutsoena baiño, andinai, lapur, guzurti, ta maltzur aundi bat izan zana, Nafartar euskal errigizarte ta erregetzari ainbat kalte egin ondoren, eta bere seme IIn Fernandori errege-bizi ekin-tzarako erakutsi eutsozan maltzur ta amarrukerizko guzurak beren aolku ta ikaspide zikiñakin, bizitz



onetan andikerizko ergelkerietan ibili zedin eta baita aaztu barik, Nafar erregetzagaz geratu zedin.

**Balls'tar Karrerak esaten dau, Argaiz'tar Gregorio'ren "La perla de Cataluña" liburu-an, 104ko orrialdean: "Manuscrito he leído en lo que confesó la reina al tiempo de morir el rey D. Juan su marido que avia dado veneno al principe D. Carlos". (Carrera Valls, Cataluña, Descubridora d'América, pag, 159).**

**Atutxa'tar Paul Zornotzan 2.015eko urtean Epaillaren 17'an**



# E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2015-11-23 ETXEBARRIatar Juan Manuel – EUSKAL MITOAK ETA EUSKERA

2015-11-24 URANGAtar Erika – 50. Urrena DURANGOko Azoka

2015-11-25 LARREAtar Angel – MEMORIA HISTORIKOA

2015-11-26 BARROETatar Klaudio – EUSKAL GARRAIOAK

2015-11 27 ATUTXAatar Paulo – GAURKO DEMOKRAZIAREN EZIÑA



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

**ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK**

Ordua: **ZAZPIRETAN**

**EUSKERAZALEAK**

## IPUIN SARIKETA

### Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira: 

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		
- Ipuiñak izen ordegaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

**EUSKERAZALEAK**

## ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian


..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.



**Joxe Migelen batela  
txitxarrua ta berdela.**

**Itsasuntziak doazenian  
bisigutan itsasora  
neskatilek artuten dabe  
tresna guztien ardura.**

**Lojetan gertatuten dire  
karnada ta aparejuek  
biaramungo egunean  
prest dana euki daidien.**

**Lojetako neskatileak  
txalopak datozenean  
asten dira gora-beretaan  
otzara zarren atzean.**